



TXIKITTO!

2023ko otsaila 214. zenbakia



**KOLOREZ
BETETAKO EGUNAK**

AURKIBIDEA

TXISTEAK	3	DENBORAPASAK	15-17
IKASLEEKIN	4-5	ZER IRAKURRI	18
BERRIKETAN		BITXIKERIAK	
IKASTETXEETAKO	6-7	IPUINA	19
BERRIAK		ZU BAI MARGOLARI ..	20
AMAMAREKIN BERBETAN ..	8-9		
ARATOSTEAK	10-14		

 **eta kitto!**
euskara elkarteak

Argitaratzailea
“...eta kitto!”
Euskara Elkarteak
Urkizu, 11
20600 Eibar
Tel: 943 206776

**Erredakzio-
kontseilua**
Maider Aranberri,
Ana Aizpurua,
Ekhi Belar eta
Eibarko ikastetxeak

Administrazioa
Marisol Uriarte

Erredakzioa
Maider Aranberri eta
Ekhi Belar

Ikusentzunezkoak
Yanire Sagredo

Azaleko argazkia
Joseba Barrutia *Arno*

Copyright-a
Txikitto!

Lege-gordailua
SS-1111/96





Bazen behin euskaldun bat gaztelaniar batekin topo egin zuena eta euskaldunak esaten dio:

- Barkatu barkatu.

Eta gaztelaniarrak erantzuten dio:

- Y tu canoa.



Lagun batek beste bati:

- Badakit zergatik nagoen gizen! Xanpuaren errua da.

- Xanpuarena?

- Bai ,etiketan jartzen du gorputza eta bolumena eman. Beraz, hemendik aurrera ontzi-xaboiarekin dutxatuko naiz, koipea kentzen du-eta.

Bi gizon kaletik doaz eta esaten dio batak besteari:

- Hara! Txokolatea dago lurrean!

- Ez! Kaka da!

- Ez! Txokolatea!

- Probatu eta ikusiko duzu nola txokolatea den.

- Ados, mmmm..oh, ez, kaka da!!



Nola gelditzen da mago bat jan eta gero? Magordito.

- Jaimito zer da Z?

- Hizki bat andereño.

- Eta zer da K?

- Errepikatu ezin daitekeen hizkia!



- Lotara joan.

- Zergatik?

- Lo-aurpegia duzulako.

- Ba zuk tximino baten aurpegia duzu eta ez dizut oihanera bidaltzen.





Klima-aldaketari aurre egitea gure esku dago



BIDEOA

Euskal Herriko klima eta eguraldia aztertzen jardun dute Iturburuko 5. mailako ikasleek. Bertan elkartu dugu zortzikotea, ikastetxeko paraje ederrean, eguraldi zoragarriak lagunduta, eta han azaldu digute ikasitako guztia.

JUNE APRAIZ



Azkeneko asteetan ikasten aritu gara Euskal Herriko klima, paisaia eta kutsaduraren eragina. Ikasi dugun gauza bat da Euskal Herrian, lurralde aldetik oso zabala izan ez arren, klima desberdinak ditugula. Lau dira guztira: klima ozeanikoa, mediterraneokoa, tartekoa eta mendikoa.

JON UNANUE



Klima urte osoan egiten duen eguraldia da. Hor barruan sartzen dira tenperatura, haizea eta prezipitazioak. Prezipitazioak dira euria, elurra eta kaskabarra. Tenperatura dira graduak eta haizeak izan daitezke leuna, bortitza eta oso bortitza.



LUKA VEGA

Klima ozeanikoan euri ugari egiten du eta temperatura egokia dauka. Udak ez dira oso beroak eta neguak ez dira oso hotzak. Urte osoan egiten du prezipitazioa, neguan batez ere. Bizkaian eta Lapurdin ematen da. Mendiko kliman (Nafarroako hego-ekialdean) udak beroak eta neguak hotzak dira. Elurra ere egiten du, eta prezipitazioa urte osoan.



UXUE KEREJETA

Tarteko klima erdialdean ematen da eta ez du klima gogorrik. Ez du ez bero ez hotz handirik egiten. Mediterraneoko klima (Nafarroa eta Araba hegoaldean) hotza da neguan eta beroa udan. Eta hori babesik ez duelako gertatzen da.



JON CORTINA

Paisaiak eta klimak badute elkarren arteko lotura, gainera. Klima ozeanikoan, itsasoaren ondoan dagoenez, paisaia berdeagoa izango da. Euri asko egiten du, ura itsasoan lurrundu egiten da, zeruan tantak elkartu eta lainoak sortzen dira eta euri asko egiten du. Zuhaitzek ur hori hartzen dute eta horregatik da berdeagoa. Mediterraneoko kliman, berriz, dena de lehorragoa, ez dago itsasoaren ondoan eta euri gutxi egiten du.



ANETTE IZARRA

Eibarren klima ozeanikoa dugu. Hori da gure klima itsasotik oso gertu gaudelako. Gezurra badirudi ere, Eibartik itsasora oinez joan gaitzake. Oinez, menditik, 7Km besterik ez dago, eta errepidez, berriz, 19Km.



JULEN BLASCO

Klima-aldaketa ezin dugu ahaztu. Zoritxarrez, gero eta gehiago ari gara somatzen kutsadura eta horrek eragiten dituen ondorioak. Lehen lau urtaroak oso ondo bereizten ziren, baina gaur egun tenperaturak muturrekoak dira. Klima hotzegiak eta beroegiak agertzen hasi dira. Eguzki izpiak gero eta bortitzagoak dira eta horietatik babesten gaituen ozono-geruzak gero eta zulo gehiago ditu. Eta hori guztia Euskal Herrian ere gertatzen ari da.



MALEN ETXEBERRIA

Daukagun etsairik handiena plastikoa da, kalte handia egiten ari da eta biodibertsitatea galtzen ari gara. Gure esku dago Euskal Herriko eta mundo osoko etorkizun klimatikoa; azken finean, gu izan gara honen guztiaren errudun nagusiak. Birziklatzea ondo dago baina ez du balio birziklatzea eta gero plastiko mordo erabiltzea. Gauzak ondo egiten baditugu, gure paisiaz eta klimaz gozatu ahal izango dugu.





LA SALLE

Otsailaren hasierarekin hotz galanta izan dugu aurten, eta barrutik berotzeko San Blas opilak jan genituen otsailaren 3an. Betiko moduan apaizak bedeinkatu zituen patioan.

Bestalde LH4koak Coliseora joan ziren pelikula bat ikustera, eta, horretaz aparte, LH3koak piszinako ikastaroekin hasi dira. Eta aratosteak zetozela-eta, Kokodantzetan parte hartzen duten pertsonaia batzuen bisita izan genuen eskolan, "Masustak". Ze ondo pasa zuten txikiek dantzan!!



URKIZU

Eskolara etorri berriak euskara gogoz ari dira ikasten. Horren erakusgarri eskaini zizkiguten txontxongilo saioak. Primeran aritu ziren eta asko disfrutatu genuen. Bestalde, Eibar inguruko mendiak elurtuta ikusi ditugu egun batzuetan. Hori dela eta 5. eta 6. mailako ikasleek Urkiolara zeukaten txangoa atzeratuta gelditu da. Urtero bezala San Blas eguna ospatzeko San Blas opilen tailerra izan genuen eskolan. Zein baino zein hobegoak atera ziren. Ustegabeko bisita pozgarria ere jaso genuen eskolan. Santa Ageda bezperako koplak zein dotore abestu zizkiguten Institutoko ZIG gelako lagunek. Txalo bero bat beraientzat!

ALDATZE

Urte hasiera egun bereziz josita izan dugu Aldatzen. Urtarrilaren 30ean danborrada ospatu genuen eskolan, zelako martxa! Otsailaren 3an, ospakizun bikoitza izan genuen: alde batetik, San Blas eguna. Gure herriko opil gozo-gozoak jan genituen hamarretakoan eta etxera eramateko buztinezkoak prestatu genituen; eta, bestetik, aurtengo egutegia dela eta, Santa Ageda koplak egun berean abestu genituen eskolako patioan eta guraso guztiak etorri ziren gu ikustera! Egun zoragarria izan zen hura!





AMAÑA

Hilaren 11n, zapatua, jende ugari batu zen Amañako eskolan egin genuen ate ireki jardunaldian. Bertaratu zirenek eskola ezagutzeko aukera ederra izan zuten: tailer desberdinetan parte hartu, gorputza musikaren erritmora astindu... baita gure eskolaren aniztasuna erakusten duen herrialde desberdinetako janariak dastatu ere. Egun zoragarria izan zen denontzat!



ITURBURU

Aurten, otsailak 4, Santa Ageda bezpera zapatua izanik, Iturburun San Blas egunez, otsailaren 3an irten ginen santa eskean. LHko 5. eta 6. mailetako ikasleak auzoko baserrietatik abesten ibili ziren: Abanzabalegi Goikoa, Erdiko etxea eta Abanzabalegi behekoan abestu ondoren, Ikastolako jolastokian beste ikasle guztiekin batera abestu zuten berriz. A zer nolako ahots politikak ditugun Iturburuko ikasleen artean!

ARRATEKO ANDRA MARI

Eusle gelako ikasleek gurasoak gonbidatu zituzten beraiek egindako proiektuaren aurkezpena egiteko. Otsailaren 11n emakume zientzialarien eguna gogoratu genuen eskolan, emakumeek zientzia arloan duten garrantzia landuz. Gainera LH3. eta 4. mailetako ikasleek emakume zientzialari baten bisita jaso zuten. Agenda 30eko Eko Ordezkarriak udaletxera joan ziren, bilera tekniko bat egitera energiari buruzko diagnosian atera ziren zalantzak argitzera. Eta otsailari jai-giroa emateko primerako aratosteak pasa genituen eskolan!



SAN ANDRES

Otsailaren 8an, eguaztena, Ibai Baglietto bideo-joko garatzailearen bisita izan genuen San Andres ikastetxean. 3. eta 4. mailako ikasleak primeran pasatu zuten, eta bideo-jokoan munduaz gauza berri ugari ikasteko aukera izan zuten, euren aldez-aurreko zalantza asko eta asko argituz: nola programatzen diren bideo-jokoak, zeintzuk diren berak sortutako bideo-jokoak, nola diseinatzen diren bideo-jokoak, etab. Pila bat ikasi genuen!



BETSY ARIAS ETA JOSE ANTONIO NAVARRO:

"Eibartarrak oso solidarioak eta eskuzabalak zarete, asko lagundu diguzue"

Venezuela atzean lagata, 2021eko abenduaren 9an ailegatu ziren Eibarrera Betsy eta Jose Antonio eta Sebastian amama-bilobak. Urtebete pasatxo honetan primeran integratu dira hirurak bizimodu berrira. Elkarrizketa gazteleraz egin arren, Betsyk ahalegina egiten dihardu euskara ikasteko, eta, tarteka, irten zaio berbaren bat euskaraz. Arrateko Andra Mari eskolan elkartu ditugu biak, bertan ari da ikasten-eta Jose Antonio.

Kaixo, amama zelan zaude?

Oso ondo, eta pozik, elkarrizketa berezi hau egiteagatik.

Zein izan da zuretzat aldaketarik handiena?

Gauza asko: jendea, espazioak... Baina batez ere bertoko kultura. Oso kultura zaharra da Euskal Herrikoa. Gauza berriak ezagutzea eta horien inguruan ikastea asko gustatzen zait, eta horretan dihardut.

Eta zerk harritu zaitu gehien?

Ni Caracasetik nator, Venezuelako hiriburutik. Hura oso hiri handia da, sekulakoa, eta segurtasun-arazo larriak ditu. Eibar, berriz, hiri txiki bat da, eta denetarik dauka: segurtasuna, lasaitasuna... Zoragarria da! Ez dago estresik, ez dut korrika egin beharrik garraioa hartzeko, oinez heltzen naiz leku guztietara, ez da ez argindarrik ez urik falta, olio birziklatzen da beste gauza askorekin batera...

Zer alde dago hango eta hemengo haurtzaroren artean?

Alderik handiena segurtasuna da. Hemen eskolara bakarrik joaten zaretera, baita parkera ere;



Venezuelan hori pentsaezina da. Pentsa, sasoi batean, aratosteetan desfilean irteten ginen, ba gaur egun ezinezkoa da, segurtasunik ez dago-eta.

Zer da Eibartik gehien eta gutxien gustatzen zaizuna?

Den-dena gustatzen zait, hotza eta hezetasuna kenduta (barreak). Tipula ematen dut, arropageruza pila bat daramatzat soinean. Horrelako hotzarekin ohean egoteko gogoia sartzen zait!

Zein da zure lanbidea?

Venezuelan irakaslea izan naiz 32 urtetan. Haur



txikietatik hasita batxilergora arte. Irakaslearen figura oso inportantea da eta zuek zortea duzue ikasten ari zaretelako. Baina izan gauza bat kontuan: egiozue beti galderak zuen buruei eta joan beti pauso bat harago. Orain ikasiko duzuenak etorkizunean balioko dizue-eta.

Euskara ikasten ari zara, ezta?

Jakina! Hemen bizitzeko ezinbestekoa iruditzen zait! Hizkuntza zaharrenetakoa dela jakin dut eta guri ere badagokigu euskarari eustea, zaintzea, gordetzea... Gauden lekuaren parte delako eta guk ere parte hartu behar dugu prozesu horretan guztian.

Zer iruditu zaizkizu eibartarrak?

Zoragarriak. Errespetuz tratatu naute, jatorrak dira nirekin eta ni ere berdin portatzen naiz

eurekin. Beso-zabalik hartu gaituzte eta hego amerikakoak izateagatik eta euskara ez jakiteagatik ez dut inolako mespretxurik jaso, eta hori, beste herrialde askotan, ez da horrela izaten.

Euskaldunek, oro har, izaera hotza dutela diote...

Nahiko itxiak dira (barreak) eta hori guztiz errespetagarria da, baina pertsonak ezagutu ahala ireki egiten dira. Nire herrialdean, latinoak orokorrean, oso berritsuak eta alaiak gara, baina horrekin ez dut esan nahi hemengok ez direnik! Eibartarrak solidarioak dira, eskuzabalak, eta gure familiari asko lagundu diote.

Zein izan da zure ustez asmakizunik onena?

Idazkera, inongo zalantzarik gabe. Gizakion arteko komunikazioa ezinezkoa litzateke idazkerarik gabe.



LA SALLE



URKIZU








SAN ANDRES



ALDATZE



AMAÑA



ARRATEKO ANDRA MARI



KALDEREROAK




PLAY-BACK LEHIAKETA






6 DESBERDINTASUNAK




LABIRINTOA






ESALDIA ASMATU



□ = s d = e d = u
 S = g O = h g = H
 ~ = i g = r ■ = a
 ♪ = d ♪ = t

GAZTAK JARRAITU

Gaztak jarraitu



HIZKI ZOPA

A	J	K	O	R	S	A	P	E	P
D	I	M	P	E	M	N	Y	X	O
O	O	H	I	T	L	V	Z	R	K
B	G	R	F	N	U	O	I	K	E
L	T	E	A	E	I	Y	N	D	M
U	V	I	T	E	U	O	V	Z	O
E	Y	V	B	O	M	C	N	D	N
Y	S	I	M	P	S	O	M	S	M
A	C	I	I	N	T	I	N	X	Z

- DORACION
- TINTU
- POKEMON
- TEPA
- BLUEP
- SIMPSON
- MAYONS

MARGOTU 3 KOLOREKIN



Margotu



- 1 beltza
- 2 undina
- 3 Mannoia



8 EZBERDINTASUNAK



Bidali erantzunak **MARTXOAK 14** baino lehen
...eta kitto! Euskara Elkarte- Urkizu 11 . Eibar

Izen-abizenak.....

Adina..... Tel.




AURREKO ALEKO IRABAZLEA


Aupa URKO LAPEYRA txapelduna!
Aurreko aleko erantzunak bikain
asmatu dituzu eta zozketan zeu
irten zara irabazle. Ipuina eta
...eta kitto!-ren motxila zuretako!
ZORIONAK!

**Palmir** 6 urtetik aurrera

Batzuetan, ausardia abiatzea da. Bidean... Migrazioari eta errefuxiatuei buruzko kontakizun eder bezain hunkigarria eskaintzen digu Miren Agur Meabe idazle lekeitiarrak 2019. urtean argitaratutako liburu honetan.

**Gurasoak tokatzen zaizkit** 8 urtetik aurrera

Mikelen eta bion gurasoak bananduta daude, eta Mirenenak ere bai. Patxi Puzkerrenak, ez, ordea; baina guztiok egin behar izaten diegu aurre hartu ez ditugun erabakien ondorioei. Gurasoak ez dira horretaz enteratzen. Mundua, gure ikuspegitik, ez baita haiek pentsatzen duten bezalakoa. Gure betaurrekoak jantzi nahi?

**Besarkada bat Susiri** 10 urtetik aurrera

Kaixo! Txano dut izena, eta anaia biki bat dut: Oscar. Saiatu al zara inoiz robot bat egiten? Guk bat egin genuen STEAM gelan, Legoko piezekin. Eta ez hori bakarrik: eskolarteko robosumo txapelketa irabazteko zorian ere egon ginen. Lehiaketa horretan, ingeniari bat ezagutu genuen, robotikaren friki bat, oso jatorra. Handik gutxira, gure lagunak bere azken sorkuntza aurkeztu zigun: robotikaren mundua harri eta zur utzi zuen robot bat.

**BITXIKERIAK**

Txipiroi erraldoiek hiru bihotz dituzte eta odol urdina.



Izurdeek begi bat irekita dutela egiten dute lo.

Eguzki-sistemako mendirik altuena Marten dago: Olimpo (22 km-ko altuera).





Fuekoka gurasoen bila

Behin batean, Fuekoka izeneko pokemon bat bizi zen. Pokemon emea zen eta 9 urte zituen. Bere lagunak Quaxly eta Sprigatita ziren, eta asko gustatzen zitzaien abenturak egitea.

Behin, Fuekoka etxera joan zen eta gurasoak ez ziren inon agertzen. Etxean zegoen gauza bakarra ohar bat zen. Gero, lagunak etxera joan zen eta berdina gertatu zitzaien: gurasoak ez ziren inon agertzen. Ondorioz, denak batera basora joan ziren, beraien gurasoak bilatzera, ez zeudelako ez etxean, ez kalean, ez inon.

Basoan zeudela, gauza asko gertatu ziren. Horrela, abentura asko izan ostean, gurasoak aurkitu zituzten atxilotuta eta gaiztoak euren atzetik atera ziren.

Fuekokak, haserre bizian, hozkada txiki bat eman zien, eta gaiztoak barrezka hasi ziren. Quaxlyk mokokada txiki bat eman zien gaiztoei eta Sprigatitok, berriz, atximurka egin zien. Gaiztoak barrez eta barrez egon ziren eta gainera ondorengo esan zuten: "Oso txikiak zarete, eta gainera, zu neskatila ahul bat zara,

ez duzu indarririk!". Orduan, Fuekoka, horrenbeste haserretu zenez, super mega bilakatu zen eta borrokan hasi ziren. Sprigatitok hosto zorrotza erabili eta gaiztoek buelta eman zuten. Horrek Fuekokari erraztu zion sugar botatzailea erabiltzea. Horrela, gaiztoak erabat ahuldu ziren.

Oso borroka basatia izan zen: sua, ostikadak, hainkadak... Azkenean, Fuekokak, bere indar guztiekin, izugarrizko sugarra bota zuen, gaiztoak lurrera erori eta lurrundu egin ziren. Fuekoka oso pozik gelditu zen.

Modu honetan, Fuekoka, Sprigatita, Quaxly eta euren gurasoak etxera bueltatu ziren, eta betirako zorionsuak izan ziren. Gainera, Fuekokaren eskolako mutil batzuk esaten zioten neska izateagatik ahula zela, baina guzti honen ostean, beldurra hartu zioten.

Denek uste dute abentura hau amaitu dela. Ala ez?

San Andres, 4.maila (A)



ZU BAI MARGOLARI!

